

Kultur Agenda

Traila
Uria
Agoitz
2022

📞 948 336 690 - 600 445 238 ✉ cultura@aoiz.es 📺 Facebooken gaude




Agoizko Kultur Etxea
Casa de Cultura de Aoiz

 Nafarroako
Gobernua

 NAFARROAKO
ANTZOKI
SAREA

iraila

			1	2	3	4			
5	6	7	8	9	10	11			
12	13	14	15	16	17	18			
19	20	21	22	23	24	25			
26	27	28	29	30					

urria

						1	2		
3	4	5	6	7	8	9			
10	11	12	13	14	15	16			
17	18	19	20	21	22	23			
24	25	26	27	28	29	30			
31									

iraila

2-17 Memoria Historikoko Zikloa. Erakusketa:

Úriz Pi ahizpak

3 Pintxo-Potea

4 Zoko. Azoka

4 Memoria Historikoko Zikloa. Antzerkia:

Kasilda, bukatzen ez den sua

11 Agoizko Mendi Lasterketa. 6. Edizioa

11 Zine-Dokumentala. Mendiak 1976

16 Memoria Historikoko Zikloa. Oroitzapen ekitaldia

17 Musika. La Furia

23-8 Erakusketak. Agoizko Istorioak Irudietan

29-2 San Migel 2022

29 Antzerkia. Porrotx eta Marimotots

Ikastaroak 2022-23 Izen emateak: cultura@aoiz.es / 600 445 238

Irakurketa Kluba. Informazio gehiago Kultur Etxean

urria

11 Antzerkia. Nirebaitaturik

16 Dantza. Guk, Nosotras Mujeres

21.22 Antzerkia. "Don Dinero"

26 Irakurketa Kluba (euskaraz)

Txapelketak. Agoitz Hiria XVII. Argazki Lehiaketa

azaroa

1 Musika. Akademski Pevski Zbor Maribor



Memoria Historikoko Zikloa

ERAKUSKETA ÚRIZ PI AHIZPAK BALIO DEMOKRATIKO UNIBERTSALEI ESKAINITAKO BIZITZA



2-17 iraila. Areto Nagusia
Asteartetik larunbatera: 18:00-20:00

Josefa eta Elisa Uriz Pi balio demokratiko unibertsalen aldeko konpromiso sozialaren eredu dira. Bi ahizpa horiek Nafarroan jaio ziren, XIX. mendearen amaieran. Europako pedagogiaren abangoardian egon ziren, nabarmenak izan ziren Espainiako Gerra Zibilean izandako parte hartzeagatik, Frantziako errefuxiatuen defentsagatik, eta Parisen Erresistentziarekin batera, frankismoaren aurka, emakumeen eskubideen alde eta munduko bakearen alde borrokatu izanagatik, baita Haurren Nazioarteko Eguna sustatzeagatik ere. Bolero-Paprika operazioaren ondorioz, Frantziatik bota zituzten, eta erbesteratuta hil ziren, Berlinen, jaioterrira itzuli ezinik.

Aurkezpena

irailaren 2a | ostirala | 19:00

Manuel Martorell, historialaria eta "Pioneras. Úriz Pi ahizpen historia eta konpromisoa" liburuen egilea eta **Alfonso Etxeberria**, "Asociación Hermanas Úriz Pi Ahizpen Elkarte"ren lehendakaria.

ANTZERKIA KASILDA, BUKATZEN EZ DEN SUA GOITIBERA ANTZERKIA



4 iraila, igandea
19:00. Kultur Etxea. 8€

12 urtetik aurrera / Euskaraz
Duración: 65 min.

Antzezleak: **Leire Orbe, Aiora Sedano, Ander Basaldua**
Zuzendaritza: **Saioa Iribarren Muñoz**

"1914ean jaio nintzen. Nire auzokide askok arraroa nintzela edo erotuta nengoela uste zuten, baina niri bost axola! Nik aske izan nahi nuen: Hondartzan biluzik igeri egin, lan egin, bozkatu eta emakume eta langile moduan aske sentitu. Betidanik ahula eta zapalduarekin bat egin dut eta bizitza osoan horren alde borrokatu... orain nire istorioa kontatzen dudala, abentura ederra izan zela konturatzen naiz".

Kasilda Hernaez Vargases oroimen historikoa berreskuratzeko pieza. Bere gaiari aurreratutako emakumea da, libertarioa, anarkista, feminista eta miliziarra.



AGOIZKO FUSILATUAK ETA ERREPRESALITUAK OROITZEKO EKITALDIA

irailaren 16a | ostirala | 20:00 | Oriomenaren parkea

Txapelketak

AGOITZ HIRIA XVII. ARGAZKI LEHIAKETA



Parte hartzaileak: Nahi duen oro.

Gaia: Agoitz.

Sariak:

Lehenengoa: **500€** (mundu guztiari zabalduetako modalitatea).

Publikoaren saria: **300€** (Agoitzen erroldatutakoei zuzendutako modalitatea).

Aurkezpena: Irailaren 5etik urriaren 17ra arte, udaletxean.

Oinarriak: Udala, Kultur Etxea eta www.aoiz.es

Ikastaroak eta Tailerrak

IKASTAROAK 2022-2023

IZEN-EMATEAK: irailaren 5etik 23ra / cultura@aoiz.es / 600 445 238

OHARRA: Materiala ez dago barne.

ANTZINAKO ALTZARIEN LEHENGORATZEA

Urria-Maiatza. 78 ordu

Astelehenak, 17:00-20:00 (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko pisua)

Irakaslea: Arantza Martinena / Matrikula: 135 €. Plaza kopurua: 12



HELDUENTZAKO PINTURA: HASTAPENA ETA HOBEKUNTZA

Urria-Maiatza. 54 ordu

Astearteak, 18:30-20:30 (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko pisua)

Irakaslea: Alodia Lusarreta / Matrikula: 95 €. Plaza kopurua: 12

Oharra: Eskola eguna alda daiteke, irakaslearen egutegiaren arabera.



ARTE PLASTIKOAK HAUR-GAZTE: 5-14 URTE. EUSKARAZ

Urria-Maiatza. 28 ordu

Astearteak, 17:30-18:30 (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko pisua)

Irakaslea: Alodia Lusarreta / Matrikula: 55 €. Plaza kopurua: 10

Oharra: Eskola eguna alda daiteke, irakaslearen egutegiaren arabera.

IRAKURKETA KLUBA

Irailetik maiatzera, literaturazaleentzako saioak.

Parte hartu nahi baduzu, izen-ematea eta informazio gehiago Kultur Etxean.

Taldeko koordinatzailea: **Socorro Latasa Miranda**

Lehenengo saioa: irailaren 22an, 17:30ean

16 urtetik gorakoentzat / Baldintza: liburutegiko kidea izatea / Matrikula doan

Dantza - Antzerkia

TEATRODIX, ANTZERKI JAIALDI KOMUNITARIOA

Antzerkia gizarte-eraldaketarako tresna gisa.

GUK, NOSOTRAS MUJERES

NABDA DANTZA ARABIAKORREN ELKARTEA



16 urria
igandea
19:00 Kultur Etxea. 6€

Publiko guztiak

Gorputzak eta mugimenduak hartzen dute obraren protagonismoa, ziklo biologikoen narrazio-konpasari jarraituz. Feminitateaz aniztasunaren ikus-pegitik hitz egiten digun kontakizun bat, emakumearen gorputzean bertan arakatzeko, bere esentzian eta bizitzaren alderdietan sakontzeko. Pieza honetan gorputzak, mugimenduak eta ahotsak fabula bat osatzen dute, dantza eta antzerkia uztartzen dituen, ekialdeko musikaz eta hamaika koreografiak egokitua.



KUIKUI

PORROTX ETA MARIMOTOTS



29 iraila
osteguna

18:00 Merkatuko Plaza. Doan

Antzerki musikala familiarra
Euskaraz
Iraupena: 70 min.

Amalurra txoriek bezala ikusten eta begiraten la-
gunduko dio Porrotxi. Ikusiko ditugu plastikoz bete-
tako itsasoak, Txo Mikmak txikiaren, baiaeren eta urpean hegan dabilen
pinguinoaren begietatik. Ikusiko dugu Tider migrantea Afrikatik Baionara
iritsi nahi. Eta jaioko da txitakolorea, Kuikui, munduari kolorea eta adorea
emango diona.

NARICES, NAFARROAKO EMAKUME PAILAZOEN NAZIOARTEKO JAIALDIA

NARICES, Nafarroako Emakume Pailazoen Nazioarteko Jaialdiak bigarren
edizioa ospatzen du.

Jaialdi inklusibo, diziplina anitzeko eta feminista gisa planteatzen da. Hel-
buruen artean, emakume pailazo profesionalen bisibilizazioa eta aitorpena
daude.

Clown-aren kultura landaguneetara hurbiltzeko asmoz, aurten euskarazko
hurrengo ekitaldia izango dugu Agoitzen:

NIREBAITATURIK



11 urria
asteartea

19:00 Kultur Etxea. 3€

Públikoa: gazte-heldua
Euskaraz
Iraupena: 60 min.

Antzezlea: **Lorean Arangoa**
Zuzendaritza: **Patxi Larrea**

60 minutu bizitzako bidean galdu zen emakumearen istorioa ikusteko.

60 minutu emakume hau beldurtuta ikusteko, bere erdipurdiko bizitzan
abaro dagoen bakardadeak beldurtuta.

60 minutu sentimenduz beterik. Bilaketak, barreak eta negarrak hitzik gabeko
bakarrizketan, barre egiteko eta hunkitzeko.

60 minutu ezarritako ereduak apurtzen, joandako denborak, amodioak...

60 minutu bere baitatzeko.

“DON DINERO”

ANTZERKI AMATEURRA



21, 22 urria
Kultur Etxea. 5€

21:00 (ostirala) / 19:00 (larunbata)

Publiko guztiak
Iraupena: 90'

Zuzendaritza: **Irati Antzerki Taldea**

Antolatzen du: **Agoizko Erretiratuen, Alargunen eta Pentsiodunen Plataforma**

AGOIZKO ISTORIOAK IRUDIETAN FORMATU HANDIKO 55 ARGAZKI



23-8 iraila-urria
Areto Nagusia

Argazkigintzaren bidez Agoizko historia pixka bat hobeto ezagutzeko aukera paregabea; XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako Agoizko ibilbide bisuala. Argazki gehienak funts historikoei dagozkie (Nafarroako Artxibo Nagusia, Iruñeko Udal Artxiboa, Nafarroako Museoa), baita bilduma partikularrei ere.

Erakusketa honen bidez, Agoizko Udalaren helburua, azken urteotan ondare historikoa berreskuratzeko egiten ari den proiektu guztiekin batera, interes etnografiko handia eta ondare aberats hau, kasu honetan argazki ondarea, kontserbatzeko beharrari buruzko arreta piztea da.



Inaugurazioa: irailaren 23a | ostirala | 19:00

Musika

BIRA NAFARROAN BARNA 2022

Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kirol Departamentuak, NICDO enpresa publikoaren eskutik, Bira Nafarroan Barna zikloaren bigarren edizioa sortu eta garatu du. Programak Foru Komunitateko talde eta artista berriei zuzenean jotzeko aukera ematen die. Guztira, 16 talde eta artista arituko dira Nafarroako 26 herritan.



LA FURIA



17 iraila
larunbata
19:30 Kultur Etxea. 5€

Nerea Lorón Díaz Cascanten jaiotzen, Nafarroan, 1983an. Espainiako Estatuko egungo rap feministaren adierazle nagusia da. Borrokalaria da haurtzarotik, feministatzat du bere burua oroz gaisetarik, baina bere bertso zorrotzekin ere gaurko munduak eragiten digun amorrua, frustrazioa eta ulertezintasuna adierazten ditu. 2013tik La Furia izenarekin rapeatzen du. Bere erreferenteak Bronx eta Harlemen-ko hip hopa eta 80ko hamarkadako rap feminista dira. Bere azken proiektua, *Postmorten* izenekoa, musika oinarri ezberdinak biltzen ditu: sehaska kanta, technoa, punk, industria doinuak, swing edo reggaettoa.

XXVII. NAZIOARTEKO ABESBATZA ZIKLOA

AKADEMSKI PEVSKI ZBOR MARIBOR (ESLOVENIA)



1 azaroa
asteartea
19:30 Kultur Etxea. 6€



Antolatzailea:



Laguntzailea:



Mariborreko Abesbatza Akademikoak musika sortzen dihardu 1964tik KUD Študent izeneko kultur erakundearen baitan, besteak beste, Student Folklore Group Študen taldearekin batera. Mariborreko ikasle- eta gazte-kultura amateurraren ordezkari garrantzitsuenetakoa da. Era berean, APZ Maribor Esloveniaren enbaxadore da nazioarteko lehiaketa eta jaialdi askotan.

Zuzendaritza: **Tadeja Vulc**

Line dokumentala

MENDIAK 1976

MENDIEN ETA PERTSONEN HISTORIA



11 iraila | igandea | 19:00
Kultur Etxea. Sarrera librea. 90'



Pertsoneri, mendiekiko maitasunari, adiskidetasunari, lankidetzari, elkartasunari, gazteen oldarrari eta pertsona maite baten galerari aurre egiteko moduari buruzko filme luze dokumentala. Pelikula baikor eta agitsua.

San Migel 2022

Irailaren 29tik urriaren 2a arte

San Migelen egitarau osoa etorkizunean jakinaraziko da.

Beste Jarduerak

PINTXO-POTEa

irailaren 3a | larunbata | 19:00



ZOKO

irailaren 4a | igandea | 10:00-14:30



AGOIZKO MENDI LASTERKETA

6. Edizioa

irailaren 11 | igandea

Ibilbide motza: 14€. 12km eta 650m+

Ibilbide luzea: 18€. 21km eta 1100m+.

Izen emateak: www.herrikrosa.eus



IRAKURLE TALDEA (euskaraz)

asteazkenak (hilean behin) | 18:00 | Euskararen Etxea

Lehenengo saioa, urriaren 26an: *Miñán* (Amets Arzallus e Ibrahima Balde)

Gidaria: **Mikel Albisu**

Izen-emateak: irailaren 23a arte / ninaizmikelantza@gmail.com / Doan



MINTZAKIDE

Euskaldun eta euskara ikasleentzat, euskara praktikatzeko.

Ikasturte osoan zehar (ostiral, larunbat edo igandetan).

Izen-emateak: irailaren 30a arte / mintzakide@aek.org

Bilera: irailaren 30ean / 20:00 / Euskararen Etxea



ERA TXOKOA

Jolastuko gara? Euskararen transmisioa lantzen

0-7 urte dituzten haurrentzat eta haien familientzat.

Errutinak, euskaraz aritzeko baliabideak, kantak, tailerrak eta abar.

Lekua: Euskararen Etxea (Era Txokoa).

Ikasturtean zehar (Informazio gehiago, orribikoan).

Izen-emateak: Irailaren 23a arte, Euskara Zerbitzuan / 15€



Dindaia

Kultur Etxea

Jendearentzako arreta, astelehenetik ostiralera (10:00-14:00)

☎ 948 336 690 - 600 445 238

✉ cultura@aoiz.es

f Facebooken gaude

Sarrereren salmenta:

• Interneten: **www.aoiz.es**

***Oharra:** Sarrerak Internet bidez erosi ezin duenak salgai izanen ditu Kultur Etxean, erakusketak dauden egunetan, 18: 00etatik 20: 00etara.

• Leihatilan, ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenago (sarrerarik gelditzen bada)

*Hartutako sarrerak ezingo dira aldatu, ezta itzuli ere, ikuskizuna bertan behera uzten denean izan ezik.

Arau orokorrak:

• Ezin izanen da aretoan sartu, funtzioa hasita baldin badago.

• Sakelako telefonoak edo/eta mota guztietako alarma edo seinaleak itzaliko dira, Kultur Etxera sartu eta.

• Isilik egon, aktoreek arreta gal ez dezaten eta beste ikusleekiko errespetuagatik.

• 7 urtetik beherako haurrak arduradun batekin agertuko dira, edozein dela antolatutako aktibitatea.

• Ezin da filmatu, grabatu edo argazkirik atera, Kultur Etxeak espresuki baimena eman ez badizu.

• Ikuskizuna edo aktibitatea garatzen den bitartean, libre egonen dira sarrerak, irteerak eta pasilloak, eta ez da han inolako elementurik utziko.

• Ezin da Kultur Etxera sartu animalia, bizikleta edo patinekin batera.

• Kultur Etxeko aretoetan ezingo da jan edo edan, Kultur Arloak egoki ikusten dituen zenbait egoeratan izan ezik. Modu berean, erretzea ere debekatuta dago.

• Programazioan zerbait gertatuz gero edo aldaketarik eman ez gero, jakitera emanen da ohiko hedabideen bidez.

• Kultur Etxean dauden langileek esandakoari jarraituko zaio beti.

• Agoizko Udalak adierazitako arauak errespetatzen ez dituzten pertsonak onartzeko edo baztertzeko eskubidea dauka.

www.aoiz.es